



KONTZERTUA

Fresko eta arina



ZUZENDARIA: ASIER PUGA (ARGAZKIAN). SOPRANO: HELENA ORCOYEN.
AURKEZLEA: ANA EGUIAZABAL. GIDOIA: MIKEL CAÑADA.
EGITARAU: BELLINI, LABOA, ROSSINI ETA DONIZETTIREN OBRAK

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Aspalditik badabil Euskadiko Orkestra Sinfonikoa saiakerak egiten herritarrei, oro har, eta gazteei, bereziki, musika klasikoa gerturatzeko. Asmo honekin ziklo berezi bat du orkestrak, Musika Gela izeneko hain zuzen ere. Gaztetxoei zuzendutako ziklo honetan saio labur eta didaktikoak aurkitzen ditugu, eta bakoitzean musikaren arlo berezi bat eta ikuspuntu konkretu bat lantzen da.

Aldi honetan, nahiz eta egitarau interesgarria ekarri Euskadiko Orkestrak, jende gutxi ikusi genuen Principal Antzokian. Pena. Pianissimo izenburuarekin, emakume-ahots inpostatuaren nolakotasunak arakatzea proposatu digu Orkestrak, eta ahotsaren analisaren bitartez musikaren ñabarduretan eta hauen terminologia espezifikoan sa-

kondu da errezitaldi honetan. Eta hau guztia ordu betean.

Belliniren Norma operaren oboaren hasierarekin hasi zen kontzertua. Asier Puga zuzendari gazteak jakin zuen txispa ateratzen orkestratik. Maisutasunez menderatu zituen lan honek dituen ñabardurak, eta emaitza koloretsua lortu zuen. Jarraian, Mikel Laboaren obra bitxi bat entzun genuen. Gernika pieza honek (Ramon Lazkanok orkestratua) badu Laboaren munduaren kutsua, erdi inpresionista, erdi ameslaria. Agian orkestrazio distiratsuago batekin bestelako erakargarritasuna izango luke, baina atsegina suertatu zen interpretazioa.

Belliniren La Sonnambula-ren aria eta cabaletta Helena Orcoyen sopranoaren lehen pieza izan zen saio ho-

PIANISSIMO SAIOA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

MUSIKA GELA ZIKLOAREN BARRUAN

Gasteizko Principal Antzokia
Martxoaren 22a

netan. Aukera izan zuen abeslariak publiko gazteari erakusteko aria batean aurkitzen diren mila zailtasun eta deabrukeriak, eta zein abilezia eduki behar den hauek salbatzeko. Teknika ondo ikasia du soprano honek, agian zertxobait forzatua une batzuetan, baina eraginkorra dudarik gabe. Bestalde, teknikatik aparte, adierazkortasuna ere erakutsi zuen Helena Orcoyenek, dramatismo izugarria azaldu baitzuen Donizetti-ren Lucia di Lammermoor operaren eroaldiaren eszenan.

Errezitaldiaren gidaria Ana Eguiazabal izan zen. Txukun bete zuen bere papera, Mikel Cañadaren gidoi eskasak jarraituz. Hau izan zen agian alderdi ahulena. Gidoiek ez zuten gehiegi aporteratzen eta ez dakit egokiak ziren han zegoen publikoarentzat. Bestela, ondo. ●